

## Beste iturrietatik

# Bitartekotza interlinguistikoa ELE eskolan: itzulpen pedagogikoaren erabilerak<sup>1</sup>

Itzulpena ez da urte luzeetan begi onez ikusi hizkuntzen ikaskuntzan, baina ageriago edo ezkutuago, erabilia izan da eskolan. Hau honela, egungo testuinguruan Itzulpen Pedagogikoak (itzulpena hizkuntzak ikasteko, alegia) duen edota izan dezakeen egitekoa eta erabilera pedagogikoa ari dira berraztertzen sakon. Adibide gisa, 2001eko Europako Erreferentzia Marko Bateratuan sartu ziren jada bitartekotza-jarduerak eta estrategiak (ahozko interpretaritza, idatzizko itzulpena, hizkuntza berean egindako laburpena eta parafasia, besteak beste). Azken finean, XXI. mendeko hizkuntza-ikasleak gaitasun komunikatiboa garatzea izan behar du itzulpen pedagogikoaren (eta, hedaduraz, bitartekotza interlinguistikoaren) benetako funtzioak.

### Gako-hitzak

*bitartekotza, bitartekotza interlinguistikoa, gaitasun komunikatiboa, itzulpena, itzulpen pedagogikoa*

Urteetan zehar, askotarikoak izan dira Itzulpen Pedagogikoaren kontra, hau da, hizkuntzak ikasteko itzulpena erabiltzearen kontra, erabilitako argudioak: “beste trebetasun batzuetara dedika daitezkeen denbora”, “efektu negatiboak egon daitezke hizkuntza-interferentziagatik”, “indar guztia idatzizko adierazpenean”... Aukerak gorabehera, hizkuntzak irakasteko elebakartasunaren ikuspegiarekin elkar daitezke argudio horiek guztiak, bakar-bakarrik H2an gauzatutako irakaskuntza defendatzen duena (atzerriko hizkuntza edo ikasi nahi den hizkuntza). Hala ere, atzerriko hizkuntza ikasteko helburu gisa jatorrizko hiztunaren antzeko idealizazioa dakar ikuspegi horrek. Askotan, ikaslearen H1a (ama-hizkuntzaz edo ikasle-talde osoak menderatutako hizkuntzaz ari garela ulertuta) prozesu kontrastatzaileen bitartez irakaskuntzaren erreminta bezala erabili da ikaskuntza errazteko, batzuetan modu ezkutuan edo jendaurrean ez onartuan; are, ikasleak ezinbestean baliatzen dira antza itzulpenaz, estrategia kognitibo edo komunikazio-estrategia gisa, esaterako.

<sup>1</sup> Jatorrizko artikulua: Sánchez Cuadrado, A. (2017). Mediación interlingüística para el aula de ELE: usos de la traducción pedagógica. *PDP Programa de Desarrollo Profesional*. Editorial Edinumen. Beraien baimenez itzulia eta argitaratua.

Hain zuzen, horregatik ari da urte batzuetatik hona Itzulpen Pedagogikoaren (IParen) zeregina berrikusteko prozesu sakona gertatzen, eta, horren ondorioz, berriztatzea ere bai (ikus lan aitzindari hauek: Lavault 1984; Hurtado 1988; Duff 1989; berrikiago, Cook 2010; Laviosa 2014; Widdowson 2014; Trovato 2016). Hizkuntzak irakasteko ohiko metodoekin lotzeak ekarri zuen mendeetan zehar IPa errefusatzea, enpirikoki frogatutako argudiorik gabe sarritan. Harrigarria bada ere, XVIII. mendearen bukaerako proposamen metodologikoez ari gara, Gramatikaren eta Itzulpenaren Metodoaz. Dena den, arestian aipatu bezala, baztertze horrek ez zuen erabat islatu hizkuntza-ikasgelaren errealitatea. Antzekoa gertatu da “goitik” edo *top-down* eran ikasgelari ezarritako beste preskripzio metodologiko askorekin, hots, garapen teorikoetatik ikasgelaren eguneroko praktikara doazenekin. Horrelakoetan, tarte gutxi izaten da egokitze metodologikorako, testuinguru bakoitzaren ezaugarri bereziei erantzuteko, bestela esanda.

Itzulpenaren erabilera baztertu egin zuten aipatu Gramatika eta Itzulpenaren Metodoaren ondorengo irakaskuntza-metodo nagusi gehienek. Hainbat argudioz baliatu ziren horretarako. XX. mende hasierako Metodo Zuzenak, ahozketasunaren defentsa egin zuen idatzizko adierazpenaren zeregin nagusiaren erreakzio gisa. XX. mende erdialdeko Metodo Audiolingualak, berriz, H2arekin alderatutako kasu gatazkatsuen aukera kurrikularrera mugatu zuen ikasleek H1a erabiltzea. XX. mende bukaerako Metodo Komunikatiboak, aldiz, H2aren input ulermenean eta output ekoizpenean jarri zuen metodologiaren ardatza, ikasleen behar komunikatibo eta ikasketa-estrategietan arreta handia jarri arren.

Eredu berriek (bai bigarren belaunaldiko komunikazio-metodoak, bai atazetan oinarritutako irakaskuntzak), atzerriko hizkuntza ikastea erraz eta/edo bizkor dezaketen beste printzipio metodologiko batzuk sartzen dituzte: ataza komunikatiboaren kontzeptua –praktika linguistikoaren eremu sortzaile dena–, eta formari arreta egiteko prozesuak –hizkuntza-kodearen ezaugarrien pertzepzioa eta jabetza bultzatzeko tresna direnak–. Testuinguru horretan, zeregin garrantzitsua eduki dezake IPak: ataza komunikatiboetarako baliozko iturria izan daiteke itzulpena (eta, hedaturaz, hizkuntza-bitartekotza, jakina), eta atzerriko hizkuntza ikasteko jarduerak antolatzeako balio dezakete ataza horiek. Bestalde, input prozesatze kontrastatzailearen gaineko jarduerak burutu daitezke edo mekanismo saihegarriak desaktibatzeako ere erabil daitezke itzultzeko jarduerak. Adibideren bat ematearren, ekoizpen askean agertzen dira mekanismo horiek: ikasleek ez dute arriskurik hartzen eduki linguistiko berriak erabiltzeko orduan, ematen zaizkien esanahi zehatzak ematera “behartuta” ikusten baitute haien burua.

Bestaldetik, gizartearen konfigurazio berria eta komunikazio-prozesuak hartu behar ditu kontuan hizkuntzen irakaskuntzak. IPa erabiltzeari dagokionez, hainbat faktorek zehazten dute aurreko hori:

- Lehenengo, ahozko eta idatzizko bitartekotza-trebetasunak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (2001) sartu izana, atzerriko hizkuntzen erabiltzaileek egiten dituzten komunikazio-jardueren zerrendaren barruan, hain zuzen. Zalantzarik gabe, itzulpenari buruzko ikuspegi-aldaketa zehaztu zuen horrek eta, IPa berrikusteko, ordura arte egiten ari zen prozesuaren aipamena egin zuen. Hala ere, Europako dokumentu kurrikularrak ez zuen lortu perspektiba ez profesional batetik trebetasun horiek zekarten guztia zehaztasunez definitzea; hortaz, bitartekotza linguistikoaren zereginei eta konpetentziei buruzko deskribatzaileak zehaztu behar dira (ikus North 2016).
- Bigarrenez, parametro berrien barruan kokatzen da gizartean komunikazioa, hala ohiko interakzioen eleaniztasuna (globalizazioaren eta hitzunez atzerriko hizkuntza gehiago jakitearen ondorio), nola beste hizkuntza batean dagoen informaziorako sarbidea errazten duten erreminten hedapena (lineako hitzegiak, itzultzaile automatiko estatistikoak eta azpitutlatzea, besteak

beste). Berez, atzerriko hizkuntza bateko hiztunek, beharbada, ez dute testurik ekoitzi beharko H2an etorkizun ez oso urrunean; horren ordez, gai izan beharko dute erreminta informatikoren batek bere H1etik itzulitako testuari zentzua emateko.

- Azkenik, metodo osteko aldiak (edo “metodo osteko baldintza”, Kumaravadivelu-ren arabera, 1994) hau proposatzen du: hizkuntzak irakasteko metodoak ez zaizkiola inposatu behar ikasgelaren errealitateari, baizik eta era askotako praktikak erabil daitezkeela eskolan irakaskuntza-ikaskuntza testuinguruaren beharretara eta mugetara egokituta, baldin eta bere eraginkortasuna enpirikoki frogatuta geratzen bada.

Adierazitako guztiagatik, atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren barruko elementu bat gehiago bezala tratatu behar dira idatzizko bitartekotza interlinguistikoaren trebetasunak (ahozko kulturarteko, hizkuntza-barneko eta hizkuntzarteko bitartekotza beste prozesu batzuekin batera). Gainera, haren garapena ezin da hartu beste trebetasun linguistikoaren garapenaren ondorioztat: itzulpena irakurritakoaren ulermenean eta idatzizko adierazpenean oinarritzen dela egia bada ere, ikasleak trebetasun horretaz baliatzeak etorkizunean itzulpenari aurre egiteko gaituko ditu.

Puntu horri dagokionez, komeni da adieraztea era sistematikoan eta informazio onarekin berreskuratu behar dela IPa, hizkuntzen irakaskuntzaren beste alderdi batzuk berrikustean bezala, gramatikaren tratamendua esate baterako. Horretarako, beharrezkoa da:

- Une oro zehaztea zer alderdi ari den tratatzen hizkuntzak ikastearen dimentsio interlinguistikoan, oso desberdina baita ataza komunikatibo bezala erabiltzea IPa, non ikasleek zenbait testu jaso eta eman behar duten beste hizkuntza batean, edo IParen erabilera intzidental soila erreminta esplikatibo bezala.
- IPak erabil ditzala azken hamarkaden hizkuntzen didaktikan garatutako aurrerapen ugariak, adibidez lankidetzak-ikaskuntza edo edukien araberrako irakaskuntza (ikus Sánchez, prentsan). Jakina, Itzulpengintzaren Pedagogiaren eremura (itzulpengintzaren etorkizuneko profesionalen prestakuntzaren ardura duenera) begiratu behar du IPak, baina honen iturri nagusi izan behar du hizkuntza-didaktikak, ikasleen komunikazio-gaitasun orokorra hobetzea baitu helburu.

Bukatzeko, eta perspektiba metodologiko batetik begiratuta, nabarmentzekoa da IP lan-eremu zabala dela ikasleek gaitasun eta estrategia berriak garatu ahal izateko, baita jada badauzkatenak mobilizatzeko ere (ikus adibidez, González-Davies 2004; Kerr 2014). Potentzial pedagogiko hori hiru eremu hauen barruan sailka daiteke:

1. IPa **jarduera komunikatibo** bezala: bitartekotza interlinguistikoaren jarduerak.  
Beharrezkoa da bitartekotza linguistikoaren gaitasunetan trebatzea ikasleak, atzerriko hizkuntza bateko erabiltzaile gisa inoiz erabili beharko dituzten jarduera komunikatiboak izateagatik. Bitartekotza ahalbidetu behar dugu, gure ikasleei irakurtzeko, idazteko, entzuteko eta hitz egiteko orduan trebetasunak garatzen laguntzen diegun bezala. Hala ere, ez da nahikoa bitartekotza-praktika jarduerak planteatzea: beharrezkoa da ikasleei aldazio pedagogiko eta komunikatibo egokiak ematea. Hona hemen IParen erabilera horren adibideren bat: idatzizko itzulpen-jarduera intentsiboaren bitartez kideek begi hutsez egindako itzulpena aztertzeke prestatzea ikasleak, edo zatikatutako entzumen-jarduera (*split-listeninga*) egitea, non ikasleek oharrak hartzen dituzten haien kideei informazioa itzultzeko geroago.
2. IPa **testu-jarduera** bezala: itzulpen-prozesua lantzea.  
Itzulpenak zenbait estrategia eta teknika dakartza berekin ikasleek bai esplizituki bai inplizituki ikas ditzaketanak. Gainera, beste gaitasun batzuetara

transferitu daitezke estrategia horiek. Ikasleek egindako itzulpenetatik abiatuta, itzulpen-teknika desberdinak (modulazioa, transposizioa, etab.) aztertzea izan daiteke IParen erabilera-eredua, eta horrek ere balio dezake H2an zuzenean egindako idatzizko adierazpen-trebetasunak hobetzeko.

3. IPa **estrategia kognitibo eta komunikatibo** bezala: ikasteko erreminta bat. Irakaskuntza-estrategia izan daiteke itzulpena, bai ikasleen arteko komunikazioa sustatzeko, bai inputaren prozesamendua errazteko, bai outputa aztertzeko. IParen erabilera horren adibide bat hauxe da: H2an biltzea eta bilatzea jarduera jakin bateko interakzioa burutzeko beharrezkoak diren baliabide linguistikoaren baliokideak, zeinak irakasleak ez zituen aurreikusi. Hona hemen beste adibide bat: azterketa kontrastatzailea formari arreta egiteko teknikekin edo gramatika kognitiboko teknikekin konbinatua.

Horrenbestez, itzulpenak hizkuntzen metodologian eduki duen ibilbidea aztertu da artikulu honetan, baita gaur egun erabilera pedagogikoari ematen ari zaion errekonstruzio- eta berrikuspene-prozesua ere. Lehenago aipatu denez, hizkuntzen irakaskuntzan egindako aurrerapenei begira burutu behar da beti errekonstruzio hori, Itzulpen Pedagogikoak, bitartekotza interlinguistikoaren aldaera garrantzitsuenetako bat bezala, bere benetako funtzioa bete dezan: XXI. mendeko atzerriko hizkuntzen ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

**Bibliografia**

- Alcarazo, N. eta López, N. (2014). Aplicaciones didácticas de la traducción pedagógica en la clase de ELE. *RedELE*, 24.-
- Cook, G. (2010). *Translation in Language Teaching*. Oxford: Oxford University Press.
- De Arriba García, C. eta Cantero Serena, F. (2004). Actividades de mediación lingüística para la clase de ELE. *RedELE*, 2.
- Duff, A. (1989). *Translation*. Oxford: Oxford University Press
- Europako Kontseilua – HABE. (2005, argitalpena euskaraz) (2001, frantses eta ingeles bertsoak). *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. Hemendik berreskuratua: [http://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/didakteka/europako\\_erreferentzia\\_marko\\_bateratua](http://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/didakteka/europako_erreferentzia_marko_bateratua)
- Gamboa, L. (2005). Del valor de la traducción como destreza de mediación en la construcción de una competencia plurilingüe y pluricultural en el estudiante de ELE, y de la influencia del concepto de plurilingüismo en el Marco común europeo de referencia para las lenguas. *Carabela*, 58, 75-91.
- Galindo Merino, M. M. (2013). La lengua materna del aprendiz en el aula de ELE in B. Montmany eta N. Sans (koord), *XXII Encuentro Práctico de profesores de ELE*. (37-42 or.). Barcelona: International House - Difusión. Hemendik berreskuratua: <http://www.encuentro-practico.com/pdf13/dossier.pdf>
- González-Davis, M. (2007). Translation: Why the Bad Press? A Natural Activity in an Increasingly Bilingual World. *Humanising Language Teaching*, 2.
- House, J. (2016). *Translation as Communication across Languages and Cultures*. Oxon, Nueva York: Routledge.
- Hurtado Albir, A. (1988). La traducción en la enseñanza comunicativa. *Cable*, 1, 42-45.
- Kerr, P. (2014). *Translation and Own-language Activities*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Kumaravadivelu, B. (1994). The Postmethod Condition: (E)merging Strategies for Second/Foreign Language Teaching. *Tesol Quarterly*, 28(1), 27-48
- Lavault, E. (1984). *Fonction de la traduction en didactique des langues*. París: Didier Érudition.
- Laviosa, S. (2014). *Translation and Language Education. Pedagogic approaches explored*. Londres & Nueva York: Routledge
- Leonardi, V. (2010). *The Role of Pedagogical Translation in Second Language Acquisition. From Theory to Practice*. Berna: Peter Lang.
- North, B. (2016). Developing CEFR illustrative descriptors of aspects of mediation. *International Online Journal of Education and Teaching (IOJET)*, 3(2), 132-140. <http://iojet.org/index.php/IOJET/article/view/125/131>
- Sánchez Cuadrado, A. (prentsan). *Aprendizaje formal de ELE mediante actividades cooperativas de traducción pedagógica. Colección Monografías ASELE. Premio de Investigación K*. [Doktore-tesia]. Madrid: ASELE
- Sánchez Cuadrado, A. (prentsan). Uso de imágenes en actividades de traducción pedagógica: el caso contrastivo inglés-español de la pasiva perifrástica. In T. Cadierno, T., A. Castañeda eta E. Ibarretxe (ed.), *Lingüística cognitiva y español como lengua extranjera*. Oxford: Routledge
- Trovato, G. (2016). *Mediación lingüística y enseñanza de español/LE*. Madrid: Arco/Libros-La Muralla.
- Widdowson, H. (2014). The Role of Translation in Language Learning and Teaching. In J. House (ed.), *Translation: A Multidisciplinary Approach*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.